

2014ko urtekarria

GUaiXe.eus

Ale Berria

SAKANAKO ASTEKARIA

2015ko ilbeltzaren 9a, ostirala
2. aldia • 491. zenbakia

LEGE GORDAILUA:
NA-633/1995



» Sakanerria

2014-01-01 305 gutxiago. Aurreko urte hasierarekin alderatuta populazioak %1,47 egin zuen behera.

2014-01-01 Dirutza. ONCEn sariak 800.000 euro utzi zituen Altsasun.

2014-01-02 Ahotsen Mintzoa. Urtekarria banatu zen Arakilen eta Irurtzunen.

2014-01-04 Galdeketa galdera. Etxarriko A13 ekimenak herri galdeketa galdera aukeratu zuen: Nahi al duzu Euskal Herria independente bateko herritarra izan?

2014-01-06 Altsasuko kintoen errege-erreginak.

Maialen Misiego, Ainhoa Santano, Aitor Lizarraga eta Beñat Iglesias.



2014-01-09 HKPren balantzea. Hipotekak Kaltetutakoen Plataformaren jardunaren balantze laburra: 4 emate lortuak, alokairu sozialarekin lortutako emate 1 eta bankeetxeekin lortutako 8 akordio.



2014-01-10 Ludotekak 20 urte. Altsasuko Txantxari ludoteka 20. urteurreneko ospakizunak hasi zituen.

2014-01-14 Aldaketa eskaerak UGTn. Sakanako UGTko kideak sindikatuaren Nafarroako ezohiko batzarra egin eta idazkari nagusia aldatzearen alde agertu ziren.

2014-01-14 Herriz herri. Egiaurretan hasi zuen Arakilgo Udalak herri guztietatik pasarazi zuen kontaktu erronda.

2014-01-15 Aparkaleku berria Altsasun. Zelandiko autoendako aparkalekua erabilgarri zegoen.

2014-01-15 Izendapena. Nafarroako Gobernuak Hiriberriko Kontzejuko Kudeaketa Batzordea izendatu zuen.

2014-01-17-20 San Saastin. Danborradak Parkea Martxan taldea omendu zuen. Piperopil txapelketa Rosa-

Ikasketa berriak Lanbide Heziketan



2014-01-30 Mendi ertaineko kirol-teknikari ikasketak hasi zituzten 21 ikaslek.

rio eta Lourdes Sotok irabazi zuten.

2014-01-18/19 San antondarrak. Dorrao, Bakaiku, Iturmendi eta Urdiaingo San Anton kofradiak bildu ziren.

2014-01-19 Plazaolaren mendeurrena. Efemeridea ospatzeko Lekunberrin elkartu ziren trena pasatzen zen udaletako ordezkariak.

2014-01-20 Zumalakarregin lanak. Altsasuko plaza horretako aterpea konpontzeko lanak hasi ziren. 5 urte zeramatan metalezko zutoinak jarriak.

2014-01-22-26 Sakana Fiturren. Madrilgo turismo azokan Nafarroako Gobernuak, besteak beste, Artzain egunaren, Txistor egunaren, Plazaola bide berdearen eta Idiazabal gazta jatorri izendapenaren berri eman zuen. Arbizu eta Etxarriko kanpinak eta Urdiaingo Kaluxa taberna-jatetxeak kalitate turistikoko Q diploma jaso zuten.

2014-01-24 Denak programan. Mank-ek bertan behera utzi zuen Olatzagutiko Larunblai programakoparte-hartzaile guztiei egin beharreko euskara proba. Bi neska baztertuak izan ondoren izandako kexuak ekarri zuen proba egiteko proposamena.



2014-01-24 Txirrindulariendako lasaitasuna. Arabarako joan-etorriak A-1 autobia atera gabe egiteko bidea asfaltatu zuen Nafarroako Gobernuak Ziordia eta Egino artean.

2014-01-24/26 Ekonomia berdea.

Etxarriko Naparpellet eta Altsasuko Biohaus enpresak euskal ingurumen iraunkortasunaren Berdeago azokan parte hartu zuten, Durangon.

2014-01-26 14 odol-emaile omentuta. Etxarri Aranzten urrezko 3 domina eta zilarrezko 11 domina banatu zituzten.

2014-01-28 Isuna CPVri. Konpetentzia legea hausteagatik Nafarroako porlanaren sektoreko 5 enpresari, tartean Cementos Portland Valde-rivas, jarritako isuna berretsi zuen Espainiako Auzitegi Nazionalak.

2014-01-29 Argindarrarengarestitzea. Horrekin kexu, Sasoia, Nafarroako jubilatuen elkarteko kideak kontzentrazioa egin zuten Altsasun.

2014-01-30 Baleontzirako zura zerratzten. Zeraingo Zerralan kooperatiban hasi ziren San Juan baleontzia egiteko Sakanako zura zerratzten ibarreko bi langile.

Birziklatzea mikroipuintara



2014-01-31 Aralarko Mikel Donea institutuan Cranako ordezkariak berak antolatutako lehiaketan ikastetxeak izandako erantzuna aitortu zuten. Iratxe Floresek 2. saria jaso zuen.

» Kirolak

2014-01-03 Zubieta lesionatuta. Binako Txapelkako 2. jardunaldian lesionatu zen etxarriarra.



2014-01-08 Xota diru-laguntza jaso gabe. Iruñeko Udalak 2013 denboraldirako onartutako 40.000 euroak jasotzeko zain zegoela salatu zuen Irurtzungo klubak.

2014-01-12 Mattin Ezkurdiatxapel-dun. Suministros Monjardin laut'erdiko txapelketa irabazi zuen Lansalotiti 18-3 irabazita.

2014-01-11 Vuelta santutegira. Ofizialki jakinarazi zuten irailaren 3an Iruñea-San Migel etapajokatuko zela.

2014-01-15 Kirol Mankomunitateak diru-laguntzarik gabe. Pruden Indurainen arabera, "beste lehen-tasun batzuk" daude.



2014-01-18 Sakanako Pilota Txapelketa finalak. 11 final jokatu ziren Arbizun eta Lakuntzan.

2014-01-19 Imaz txapel-dun. Zangozako lau t'erdian Imazek 18-12 irabazi zion Goikoetxeari.

2014-01-11 Imanol Erbiti lanera. Hiriberrikoak (Movistar) denboraldia hasi zuen Australian.

2014-01-30 Rural Kutxaren aurkezpena Baluartan, afizionatuetan Odei Juango lakuntzarra zela.

Egoiren agurra



2014-01-08 Euskaltelen desagerpenaren ondoren beste talderen bat ez zenez aurkitu, txirrindularitza uztea erabaki zuen Egoi Martinez etxarriarra. "Arantza txiki horrekin baina irribarre handi batekin esaten dut agur, oso eskertuta" adierazi zuen.

» Kultura

2014-01-01 Kultura bonuak. Altsasuko Udaleko Kultura Sailak Iortia kultur guneko ikuskizunak merke-ago ikusteko bi bonu sortu zituen: familiartekoa eta hiru ikuskizunetarako.

2014-01-01 Zizili eta Rafaela. Haurrak euskarazko saioretara joatera sustatzeko kanpaina aurkeztu zuten Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak eta Altsasuko Udalak.

Queenen omenez



2014-01-04/11 Ikuskizunak aurrera egin behar du emanaldiekin Haize Berriak bandak Queen taldea omentu zuen.

2014-01 Mikel Okiñena. Zizur Nagusiko Arte2 erakusketa kolektiboan parte hartu zuen.

2014-01-22 Abesbatzarako aho-tsak. Etxarri Aranazko Abesbatzak interesatu guztiei koraleko kide egitera gonbidatu zien.



2014-01-24 Helena Santano Cid. Bere ibilbidearen atzera begirako erakusketa mustu zuen Altsasun.

2014-01-26 Argazkilaria altsasuarra. Miguel Goikoetxea de Jorgeren aipamena (Altsasuk 1894-Iruña 1983) jaso zen *Diccionario de fotografos españoles* liburuan.

2014-01-30 Arretxerekin. Etxarriko Irakurle Taldea Arbizuko idazlearekin solasaldia izan zuen.

2014-01-31 12cm. Hendaiako tamaina txikiko lanen erakusketa kolektiboan Itziar Nazabalen biluzien serieko bi koadro egon ziren.

JUANLUZENEAA
SAGARDOTEGIA



948 604 571 · 680 652 183 ODERITZ

ilbeltzaren 17tik
maiatzaren 3ra arte



ilbeltzak 17
TXOTX!



» Kultura

Bardoak



2014-02-07 Nafarroako taldekako bertso ekimenaren bigarren edizioan Bilixkorriko eta Bizkorratxiko taldeak izena eman zuten. Azken horiek, Arbizon, Leitzako Harrapazank taldearekin neurtu ziren.

2014-02-01 Abortuaren Legea. Haren kontrako manifestazio handia egin zen Madrilen eta zinema arloko emakumeek film kolektiboa egin zuten, Helena Taberna barne.

2014-02-09 Goya saria. Bigarren eskuratu zuen Jose Luis Arrizabagalak, Arrik, De la Iglesiaren *Las brujas de Zugarramurdi* filmean egindako lanagatik.

2014-02-15 Etxeberriari-tua. Beasaingo Udalaren narrazioen lehiaketan aipamena lortu zuen Laida Etxeberria Caiuela bakaikuarrik.



2014-02-16 Torturaren salaketa artistikoa. Ibarreko makina batsortzailek salaketa-ikuskitzuna egin zuten Etxarriko kultur etxean.



2014-02-21 Pintura eta eskultura. Angel Antonio Agirre-eren erakusketa Urdiaingo Kaluxa tabernan.

2014-02-21 Bardoak Etxarri. Bilixkorriko talde sakandarra eta Male-rreka-Baztango Etxeko Kontuk taldeak neurtu ziren.

2014-02-23 Maitasunaren ostean, maitasuna. Dora Salazarren unitbertsoa antzerkira eraman zuen Ados Teatrotik.

2014-02-24 Inauteria erakusketan. Altsasuko ikastetxeetako ikasleek egindako eskulanekin osatutako erakusketa mustu zen.

» Kirolak

2014-02-01 Altsasuko Mendigoizaleen egutegia. Klubaren 2014ko egitasmoak aurkeztu zituzten.

2014-02-01 Javi Moreno garaile. Otsailaren 1ean Lodosako San Blas krosa eta 15ean Zumaiako Herri Lasterketa irabazi zituen altsasuarrak.

2014-02-08 200 taekwondolari Altsasun. Nafar Kirol Jolasen taekwondoko lehen fasea jokatu zen. Altsasuko Bargagain txukun.

2014-02-12 2013ko Sakanako Atletismo Kopako sari ematea. Kopa Javi Morenok eta Erkuden San Martinek jaso zuten.



2014-02-14 Etxarriko rokodromoa martxan. Herriko eskalataileek sustatua, medikuaren etxea zenean.

2014-02-15 Sakana Irristaketa Kluba lehiaketetan. 2014 denboraldia hasi zuen taldeak.

2014-02-23 Marcos Beraza ongi. Andosillako I. Cross Countryan lehen juniorra izan zen irintarra.



2014-02-26 Hodei Mazkian Caliko Munduko Pista Txapelketan. Taldekako proban 9.a eta abiadura proban 11.a izan zen altsasuarra.

2014-02-27 Mendi ibilbideen sarea kolokan. Nafarroako Gobernuak diru-laguntza faltagatik.

Mariñelarena koman



2014-02-27 Otsailaren 11n Tech3 eskuderiarekin Mundiala prestatzeko lehen entrenamendu ofiziala egin zuen Alex Mariñelarenak Jerez. 27an istripu larria izan zuen Frantziako Paul Ricard zirkuituan, entrenatzen. Medikuek koma-induzituan jarri zuten.

» Sakanerria

2014-02-01 Kataluniako herri galdeketak. Horien gaineko azalpenak eman zituzten Anna Arquék eta Josep Manel Ximenisek Etxarri.

2014-02-01 Tokiko maparen erreformaren kontra. Berriozarren egindako batzarrean Nafarroako hainbat hautetsi, sakandarrak barne, Nafarroako Parlamentuan sustatzen ziren berregituratzearen kontra azaldu ziren.

2014-02-02 Programazioari saria. Urdiaingo eskolako taldeek lortu zutena Frist Lego League lehiaketaren Nafarroako kanporaketan.



2014-02-03 Baikapen ardura iker-tzea. Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzordeak, eta aurretik langile ohiek, Inasaren itxiera nahita edo axolagabekeriagatik izan zen ikertzeko eskatu zioten epaileari.

2014-02-03 Euskara da Euskal Herri. Iñigo Aritza eta Txioika ikastoletako ikasleen cup-songa zabaldu zen Interneten.

2014-02-03 Enpresariak, Barcina eta Goikoetxea bilduta. Sakanako Enpresarien Elkarteko ordezkariak gobernuko buruei ibarreko defiziten berri eman zieten.

2014-02-04 Mehatxuen salaketa. Etxarriko PPKo zinegotzi Juan Antonio Extremerak mehatxuak salatu zituen. Bilduk zinegotziak jasotako mehatxuak salatu eta bere zinegotziak jasotakoak gogora ekarri zituen.

2014-02-05 Birziklatzean gora. Aurreko urtean ibarreko gaikako bilketa %45,49ra igo zela jakinarazi zuten Mank-etik. Ateztekoa herrietan %83,4koa zen, sistema mistoko herrietan %50,73koa, Irurtzunen %28,31koa eta Altsasun %26,08 inguru.

2014-02-06 Ostegun Sozialak martxan. 5 ostegun hainbat gai landu ziren Sakanako beste horrenbeste



Kintoak Burundan



2014-02-04 Olaztikoak hasi ziren lehenak eta atzetik etorri ziren Bakaikuko, Iturmendiko, Urdiaingo, Altsasuko eta Ziordiko ospakizunak.

herrian. Euskal Herriko eskubide sozialen kartari ekarpenak egin zituzten dinamika horretatik.

2014-02-08 Plaza zuhaitzik gabe. Lakuntzako plaza berritzeko lanak hastear zeuden eta lehen lehenik zuhaitzak moztu zituzten.

2014-02-09 Aitortza odol-emailei. Irurtzunen 9 odol-emailearen ekarpena aitortu zuten.



2014-02-11 Farola itzaliak. Energia-kontsumo eraginkorrerako neurriak hartuak zituen Irurtzango Udalak, esaterako, farolen %35 itzaltzea.

2014-02-11 Gure sustriaiak. Olloko aterpe irisgarria mustu zen. Sustatzaileen artean Leire Rivas eta Joseba Bustamante altsasuarrak daude.



2014-02-14 Osasun erreformaren kontra. Osasun etxeetako

mediku eta erizainek euren lan baldintzak okertuko zirela salatu zuten.

2014-02-15 Sakantzen Sarea birpentsatzen. IV. Lan Jardunaldi Irekiak antolatu zituen sareak. Hiru egitasmo berri aurkeztu zituen.

2014-02-16 Lurkide batzarra. Deikatzelu eta Itsaso arteko goi tentsioko argindar linearen kontra konpromisoa hartu zuten 247 eragileak batzartu ziren, Sakanako 71.

2014-02-17 Boluntariotzaren sustapena. Aste batez Burunda men-

debaldeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak gizarte-boluntariotza sustatzeko kanpaina egin zuten.

2014-02-18 Udalak etabiki euskaraz. Sakandarrek euren udalari harremanak euskaraz izateko eskaerak egitera animatu zituen Euskal Herrian Euskaraz-ek.



2014-02-20 Landa-berrikuntza eta elikadura. Europako eskualde arteko programa bateko kideek bi elikadura enpresa bisitatu zituzten.

2014-02-20 Galdeketerako araudia. Etxarriko A13 ekimenak batzar irekian erabaki zuen independentziaren aldeko galdeketerako araudia zein izanen zen.



2014-02-23 Bertako ikurren alde. Zelai eta San Joan kaleen bidetuztean Altsasuko eta Nafarroako banderak eta ikurrin jarri zituzten.

2014-02-27 Txorizo saritua. Lakuntzako Jose Mari Agirrek 18. Bilbo Hiria Etxeko Txorizoen lehiaketa irabazi zuen. Irurtzango Urrutiarena eta Urdiaingo Lopez de Goikoetxearena finalistak izan ziren.

2014-02-27 Sozialisten aulkiak bete-ta. Bi urtez hutsik egon ondoren, David Medina zinegotzi sozialistak kargua hartu zuen.

txiki pé

Zapata-denda eta haurren moda

Arropa 0-8 urte

Zapatak 38. zenbakira arte

MERKE ALDIA BEHERAPENAK

948 100 563
Erkuden, 4. behea · 31800 Altsasu
txikipe@gmail.com · www.txikipe.com

SAKANAKO MANKOMUNITATEA

Mank
s a k a n a

Uritz kalea 32
Lakuntza

ZERBITZU OROKORRAK	948 464 867
EUSKARA ZERBITZUA	948 464 840
KIROL ZERBITZUA	948 464 866
ETXE ZAHARBERRITZE BULEGOA	948 576 293
IMMIGRAZIO ZERBITZUA	648 070 710

www.twitter.com/sakanamank www.facebook.com/sakanamank

erregistroa@sakana-mank.com · info@sakana-mank.com

www.sakana-mank.eus

» Sakanerria

Emakumeen Nazioarteko Eguna



2014-03-08 Irurtzunen, Arbizun eta Olatzagutian afariak egin ziren. Abortuaren aldeko kontzentrazioak egin ziren Altsasun eta Olatzagutian.

2014-03-03 **Emakumeen Jardunaldiak.** Emakumeen Nazioarteko Eguna zela eta ekitaldiz betetako egitaraua abiatu zen Irurtzunen.

2014-03-03 **Palindromogile saritua.** Arrasateko IV. palindromo txapelketa irabazi zuen Migel Angel Barrerok. Saritutako palindromoa: Auzi aurrean, amaren zain, iaz neramana: errua, izua.



2014-03-04 **Euskaraz naiz.** Arbizuko eta Etxarriko udalek, UEMArekin batera, izen-abizenakeuskalgrafiaz jartzeko tramite erraza udal txean egin zitekeela jakinarazi zuten.

2014-03-05 **Etorkizuneko Bakaiku.** Udalak herritarrekin batera 2025eko Bakaikuk nolako izan behar lukeen zehazteko dinamika ezagutarazi zuten.

2014-03-07 **Ikasten.** Trebakuntzarik ez zuten 50 langabetuk gutxienez ezagutzak jasotzeko ikastaroa hasi zuten. Gero beste ikasketa batzuek egiteko aukera izanen zuten.

2014-03-07 **ITB berriua.** Irurtzun Telebistak bere bigarren denboraldia hainbat aldaketekin abiatu zuten.



2014-03-14 **Lakuntzako Udalarekin euskaraz.** 15 lakuntzarrek udalarekin harremana euskaraz nahi zutela adierazi zioten idatziz.

2014-03-15 **Morir para contarlo.** Salvador Ulyar Mundiñanok liburua

aurkeztu zuen Iruñean.

2014-03-18 **Ibarrerako bide-orria.** Sakana 2020 Plan Estrategikoaren aurrerapena aurkeztu zuten eta ekarpenak egiteko eskaera egin zuten.

2014-03-19 **Duintasunaren mar-txa.** Gune plataformak antolatuta Euskal Herria zeharkatu zuen gobernuen politika antisozialak salatzen.

2014-03-21 **Ingurumen jardunaldiak.** Irurtzunge Udaleko Hirigintza eta Ingurumen batzordeak antolatutako jardunaldiak hasi ziren.

2014-03-21 **Altsasuko udalarekin euskaraz.** EHEK udalarekin euskarazko harremana nahi zuten 50 altsasuarren baino gehiagoren eskaerak jaso zituen plazan.

Plana herritartzen



2014-03-24 **Sakanako Plan Estrategikoa Altsasun aurkeztu zuten jendaurrean.** Ondoren, Irurtzunen eta Etxarri. Ekarpenak egiteko epea zabalik zegoen.

2014-03-25 **Kulturarteko bitartekariak.** Mank-eko Immigrazio zerbitzuak jakinarazi zuenez, dozena bat boluntario sakandar kulturen arteko zubi lanean ari dira.

2014-03-27 **Ikasle greba.** LOMCE Legearen eta "inposatu" nahi zuten bestelako neurrien kontra protesta egin zuten ikasleek.

2014-03-27 **Kooperatiben eredia.** Altsasun saioa egin zen kooperatiben esperientzien berri emateko.



2014-03-27 **Langile elebidunik ez.** Eremueuskaldunetako osasun-etxe eta liburutegietan aritzeko langileen profil euskaldunak ez eskatzea erabaki zuen Parlamentuak.



2014-03-28 **Memoria historikoa.** Altsasu Memoria-k historiaren bilketa lana erakutsi zuen lortian.

2014-03-29 **Sakatxartel asteburua.** Asteburuan Beleixeguaxe txartela erosketak egiteko erabili zutenak sarien zozketan sartu ziren.

2014-03-29 **Aurrekontu parte-hartzaileak.** Irurtzundarrek lau lan proiektuetako baten alde azaltzeko aukera zuten, gero udalak bere aurrekontuan gehitzeko.

2014-03-29 **Etxarriko udalarekin euskaraz.** EHEK udalarekin euskarazko harremana nahi zuten etxarriarren eskaerak jaso zituen plazan.



2014-03-30 **247 taupada lurrarekin.** Lurkide konpromisoa sinatu zuten erakundeetako ordezkariak goi tsioko linearekin jarriko liratekeen espazioak babestu zituzten.

2014-03-31 **Larrezabal gaztarendako aitortza.** Patxi Amillano Garasa altsasuarrek 2013ko estatuko gazta onenaren saria jaso zuten Bartzelonako Alimentaria azokan.

» Kirolak

Lizarraga, brontzezkoa



2014-03-02 **Espainiako Junior Mailako Borroka Olinpikoko txapelketan hirugarrena sailkatu zen Sara Lizarraga arbizuarra, 51 kiloko emakumezkoen mailan.**

2014-03-02 **June Kintana Espainiakotxapeldunordea.** Espainiako Jaurtiketa Luzeen Neguko Txapelketan, disko jaurtiketan zilarrezko domina lortu zuen (47,82m).

2014-03-05 **Alex Mariñelarenakomantik atera zen,** aste baten ondoren.

2014-03-08

Gure Pilotakotxapeldun.

Nafar Kirol Jolasen emakumezkoen paleta gomako final guztietan Etxarriko palistak aritu ziren eta 3 finaletan gailendu ziren.



2014-03-14 **Ezkurdia-Zabaleta Binakakotik kanpo.** Bikosakandarrazzen final laurdenetarako sailkatu.

2014-03-16 **Altsasuko Lilasterketa garrantzitsua.** 112 emakumek hartu zuten parte.

2014-03-21 **Arbizu Futsalsakana Txapelketako txapelduna.** Racing San Migeli irabazi zion, penaltietan.

2014-03-22 **Etxarri jubenilen mailako txapelduna.** Gazteen 2. mailako liga irabazi eta igoera fasera ko sailkatu zen.

2014-03-22/29

Igor Flores lehensakandarra Altsasuko eta Arbizuko duatloietan.

Arbizukoan 16.a izan zen eta Altsasukoan 12.a.



2014-03-22 **Olatz Azazeta Espainiakotxapelduna.** Bere talde Saltozik irabazi zuen erlojupekoa.

2014-03-30 **Xala-Zubieta Binakako finalerdietan.**

» Kultura

2014-03-01

Tarima Beltzaren berriena.

Nunca fuimos héroes antzezlana mustu zuen Altsasuko antzerki talde amateurren etxean.



2014-03-01 **Antzerki tailerra Urdiainen.** Zoila Berastegirekin antzerki teknikak ikasi zituzten hurrek.

2014-03-03 **Pintura tailerrekoen lanak.** Martxo guztian ikusgai izan ziren Irurtzunen.

Txistu Kontzertua



2014-03-15 **Burundar txistulariek Hastapenak** izenburuko kontzertua eskaini zuten Altsasuko kultur gunean.

2014-03-14 **Antzezlana.** Irurtzunge antzerki tailerrak *De tontos y otras especies* antzezlana mustu zuten.

2014-03-18 **Xaikoren diskoa.** Xabier Zelaia eta Haitz Bujanda taldekide dituen taldeak *Therapy* diskoa aurkeztu zuten.

2014-03-24 **Konpost eroak.** Zirika Zirkusek ikuskizunaren aurre-musutzea egin zuten Etxarri.

2014-03-26 **Idazleak Andra Mari ikastolan.** Martxoan sei idazle izan ziren ikasleekin.



2014-03-29

Natxo de Felipe Altsasun.

Haize Berriak ekin batera *Peru eta Otxoa* obra eman zuten.

2014-03-29 **Los del Rayo.** *Gggrrro-ocanrolll en dosis txikitas* diskoa kaleratu zuten talde altsasuarrek.

2014-03-30 **Haur kantari jaialdia.** Etxarri Lakuntzako 6 taldek eta institutuko beste bik parte hartu zuten.

Sakanan, martxoaren 27-28 gauek

EUSKAL AHAL DUN!

Urepeletik Bilbora

19.korrika

URTARRILEAN AUKERATU ZURE TALDEA

SAKANAKO ITSASI AEK EUSKALTEGIA

Gartzia Ximenez 46. 1. Altsasu
948 468 258 · sakana@aek.org

ZIZTU ZIZTU

Paketeria eta Mezularitza
Zerbitzuak
Enpresa eta Partikularrentzat

Yoli Mazkianan
663 98 50 60

Marijo Arza
638 05 24 35

ziztubizia@gmail.com

Erabili gure txartela!

948 564 275

>> **Kultura**

2014-04-02 Juul literatur hauteskundeak. Sakanako ikastoletako ikasleek euren gogoko idazle eta ilustratzaileak aukeratu zituzten. Castillo Suarez hautatu zuten EHN.

2014-04-03 Ikasleak ipuin-kontalari. Altsasuko Sagrado Corazon ikastetxean DBH 1eko ikasleek LH 1. eta 2. ko ikasleei euskarazko ipuinak kontatzen ari zitzaizkien.



2014-04-05 Altos vuelos. Altsasuko antzerkitailerraren antzezlan.

2014-04-06 Xabier Bengoetxearendako aipamena. XIII. Aurrekua eta Soinu Zahar Txapelketan izan zen. Izaro 6. eta Amets 12.a.

2014-04-07 Literart. Burundako ikastoletako ikasleek Alberto Barandiaranen eta Castillo Suarezen obreratik sortutako artelanak lortian.

2014-04-08 Bertsolaritza irakuskuntzan. Gobernuak D eredu ikastetxeetako laguntza eten zuen. Sakanan 89 ikasle zituen.

2014-04-10 Ikasleak antzele. Institutuko ikasleek *Bar & Cenas El Katxondo* antzezlan mustu zuten.

2014-04-10 Venancio Amillano. Iruñean erakusketa mustu zuen.



2014-04-12 Folk-lore egunean. Irurtzun, Uharteko Arakil eta Lakuntzako dantzari txikiak Iruñeko dantza jaialdian parte hartu zuten.

2014-04-17 Potroak odoletan. Izenburu hori du Alfredo Alvaro Igoak argitaratutako liburuak.

2014-04-23 Irakurri, Gozatu eta Oparitu. Euskarazko irakurketa sustatzeko kanpaina abian.

>> **Kirolak**

2014-04-04 Mariñelarena etxean. Ospitalean alta eman zioten.

2014-04-05 Altsasuko IV. Hiru Mendizerrak. 700 mendizaletik gora.

2014-04-06/13 Valverde eta Contador San Migelen. Iraileko Vueltako etapa ikuskatzen aritu ziren.

2014-04-01 Josu Lizarraga bigarrena Sakana 4x4 topaketan. 33 4x4 ibilgailu eta sekulako jendetza Arbizun.



2014-04-06 Sakanako kimuen futbol 8 topaketari agur. 9 talde lehiatu ziren, 121 futbolari guztira.



2014-04-12 Sakana Triatloi Taldea, Nafarroako txapel-dunordea Eguesibarko Duetloian.

2014-04-13 Nafarroako Herri Kirol Jolasen 3 txapela Sakanara. Kimuetan Iñigo Aritza A, sokatirako haurretan Iñigo Aritza eta sokatirako kadeteetan Andra Mari gailendu ziren.

2014-04-21 Xala-Zubieta Binakako-tik kanpo finalerdietako 3. partidan.

2014-04-25 Magna play off-etara. Ligan 5.a sailkatu zen Magna Xota.

2014-04-26 27. Burunda Trofeoa Etxeberriarendako. Urdiaindarra nagusitu zen txirriindularitza proban.

2014-04-27 Naiara Diez altsasuarren Gernika saskibaloitza 1. mailara igo zen.

1.003 kide Sakanako Ibilaldi Handian



2014-04-26 25. Sakanako Ibilaldi Handia 1003 mendizalek osatu zuten. Ibilbidea alde-rantzizko norabidean egin zuten.

>> **Sakanerria**

Herri galdeketa Etxarri Aranatzan



2014-04-13 Nahi duzu Euskal Herri independente bateko herritarra izan? %42,76 parte hartzearekin, 804 etxarriarrek galderari baietz erantzun zioten, 18k ezetz, 26k txuri eta 3 boto baliogabe izan ziren.

2014-04-01 Haur-eskolen finantziarioa zalantzan. Hezkuntza Departamenduak udalei jakinarazi zuten agindutako diru-laguntzaren %30 ez ziela emanen. Udalak kexu ziren.

2014-04-02 Institututik NUPera. Aralarko Mikel Donea institutuko 31 ikasleek Nafarroako Unibertsitate Publikoa bisitatu zuten.

2014-04-04 Baikap-eko buruak auzitara eramana. Inasako langile ohiek Iruñeko auzitegian enpresako buruen kontrako kereila kriminala aurkeztu zuten.

2014-04-04 Bakaiku 2025 plana. Udalak herriari buruzko inkesta zabaldu zuen aurretik eta bakaikuarrek ekarpenak egiteko epea despeditu zen.

2014-04-04 Gonbidatu izatek protagonista izatera. Emakumezkoek Altsasuko Santa Ageda ospakizunetako parte hartzeari buruzko DVDa eta liburuak aurkeztu zuten.

2014-04-05 Abortatzearen alde. Makina bat sakandarrek parte hartu zuten Iruñean egin zen manifestazioan.

2014-04-06 Bigarren eskuko azoka. Irurtzongo Itxipuruk Senegalgo kontsultategi baten aldeko azoka antolatu zuen eta 1.740 euro bildu zituen.

2014-04-06 Down sindromearen alde. Makina bat sakandarrek par-

te hartu zuten Barañainen ospatu zen jaialdian.

2014-04-07 Autobusak Arakilen gelditzeko eskaera. Autobusak Ekain, Zuhatzun eta Satrustegin gelditzeko eskaera egin zion Arakilgo Udalak Nafarroako Gobernuari.

2014-04-10 Etegarate mendatea. Olatzagutian egindako bilkuran Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeak Idiazabal eta Altsasu arteko mendatearendako Etegarate izena hobetsi zuen.

2014-04-10 Lan osasuna Osasunbidean. Langileen osasun estaldura mutuetatik osasun sistema publikora pasatzeko eskatu zuen LABek Irurtzongo osasun etxe parean.

Errefuxiatuak bueltan



2014-04-12 Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboak iragarri bezala hasiak ziren errefuxiatuak euren etxetara itzultzen. Tartean ziren Teodoro Iza etxarriarra eta Lourdes Mendinueta arbizuarra.



2014-04-14 Errepublikaren alde. Errepublikari gogoa eta errepublika aldarrikatzeko ekitaldiak antolatu zituen IUk Altsasun.

2014-04-15 Binaka irakurtzearen onura. Hezkuntza Departamentuak jakinarazi zuenez ulemena hobetzeko programan parte hartzen ari ziren Irurtzongo Atakondoa eskolako LHko 2. eta 3. mailako 100 bat ikasle.

Gazte burutakzioa



2014-04-18-19 Altsasuk Ernaik eta Aintzina gazte antolakundeek prestatutako topaketak hartu zituen.

2014-04-24 Atakondoako aldage-lak konpontzea. Horixe erabaki zuten irurtzundarrek aurrekontu parte-hartzaileen bidez.

2014-04-24 Herri Ostiralak. Altsasuk Ospa mugimenduak deituta, hileroko hitzordua abiatu zuten, "isun politikoei aurre egiteko".

2014-04-28 Karguekin aske. "Terro-rismoa goratzea" leporatuta Iruñeko Guardia Zibilaren komandantzia deklaratu ondoren, goizeko sarekan-dan atxilotutako Asier Gartzandia aske gelditu zen.

2014-04-29 ETB LTD bidez ikuste-koeskaera. Mank-ek Nafarroa osoan euskarazko telebista gailu digitaletan ikusteko aukera eskatu zuen

AD Eren irudi berrak



2014-04-30 Altsasuko Dendarien Elkarteak Elena Verak egindako logotipo berria aurkeztu zuen, baita hartan oinarritutako kanpaina ere.



IKUSLEAREN EGUNA
ZATOZ ZINEMARA

IORTIAN
OSTEGUNERO
19:00etan
3€

» Sakanerria

Sakanako Plan Estrategikoa



2014-05-31 Sakanako Sozio-ekonomia Behatokiak 2020 urtera arteko bide-orrria aho batez onartu zuen.

2014-05-01 Maiatzak gora. Maiatzak Etxarri Aranatz, Bakaiku eta Iturmendin jaso ziren.

2014-05-01 Langileen eguna. Sakan mobilizazioa egin zuen bakarra LAB izan zen, Altsasun manifestazioa eta bazkaria antolatuz. Gai-nontzeko indarrek hiriburu eta deitu zuten.

2014-05-03 15 urte. Belexe Irratiak (FM 107,3) 15 urte bete zituen.

2014-05-07 Hizkuntza eskubideen egoera. Pasa den urteko txostena aurkeztu zuen Kontseiluak. Sakan-darrak zerbitzua euskaraz ez jasotzeagatik hainbat salaketa jaso ziren.

2014-05-08 UEMAn sartzea. Hori xe erabaki zuen Arruazuko Udalak.

Sakanako Herri eskolen festa



2014-05-10 Altsasuk hartu zuen laugarren edizioa. Egun osoko egitarau mamitsuak jendetza erakarri zuen.

2014-05-8-10 Europako programa batean. Irurtzungo Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko ordezkariak Europako eskualdeak gizarteratzearen alde proiektuko lehen topaketan izan ziren Madril.

2014-05-10 Bakaikuko gaztainondoak. Basoan dauden gaztainondoak zaindu eta berreskuratzeko asmoz sortutako lantaldeko kideek haien kokapena eta egoeraren berri jaso zuten.



2014-05-11 Amalur azoka. Belardik antolatuta hirugarrenez egin zen lehen sektoreko azoka Etxarrin.

2014-05-14 www.guaixe.net-eko komunitatea. Sakandarrek bere

idatziak eta argazkiak web orrian igotzeko aukera dute. Irurtzunen hasi ziren herriz herriko aurkezpenak.



2014-05-16 Altsasu Memoria. Altsasuko historia osatu eta berreraikitzeke lanean ari den Altsasu Memoria taldeak 76 eta 1950 urteen arteko herriko hainbat gertakariaren bilduma aurkeztu zuen Iortian.



2014-05-16 Gazte 2 aste. Altsasuko gazteendako eskaintza martxan jarri zen.

2014-05-17 Erraldoi txikien topaketa. Juan Manuel Herroren, Zapa, tailerretan egindako erraldioen topaketa egin zen Altsasun.



2014-05-18 Lore azoka. Olatzagutiko Udalak antolatuta, plaza lorez bete zen goiz eta eguerdiz.

2014-05-21 Inasako buruen kontra kereila. Iruñeko epaitegiak 120 langilek enpresako buruen kontra jarritako kereila onartu zuen.

2014-05-21 Uharteko euskara ordonantzia. PPK 10 artikulua salatu zituen eta epaitegiak biren erredakzioa zuzentzea eskatu zuen, anbigutasunagatik.

2014-05-24 Haurren eguna. Etxarri Aranatzek hala eman zitzaion hasiera Euskal Asteari.

Elkar ezagutzeko txangoa



2014-05-25 Izurdiagan hainbat jatorritako sakandarrak elkartu ziren Mank-eko Immigrazio Zerbitzuak antolatutako egun pasan.

2014-05-25 Europako Parlamentua. Hauteskundeak egin ziren.



2014-05-27 Animatika 3D. Enplegu tailerretan ikasten hasi ziren.

2014-05-27 Kontu Ganbera. Mank-en finantza egoera ona zela adieraziz txostena aurkeztu zuen Nafarroako Parlamentuan.

2014-05-27 Elkarteen eguna. Orreaga fundazioko kide diren elkartek Nafarroari buruzko hitzaldi ziklo bat hartu zuten.

2014-05-29 Puntako ikasleak. Aralarko Mikel Donea institutuko batxilergoko 2. mailan ohorezko matrikula lortu zuten Alex Costak, Marina Arbizuk eta Leire Lizarragak.

2014-05-30/31 Elikagaien Bilketa Handia. Nafarroako Elikagai Bankuak jaki bilketa egin zuen. Haren bidez Sakanan 243 familia elikatzen dira.

2014-06-30 Galdeketagatik deklaratzeara. Etxarriko galdeketagatik fiskaltzak zabalduz ikerketagatik, Guardia Civilaren Altsasuko kuartelean lekuko gisa deklaratu zuten A13 plataformako Manu Gomezek eta Mikel Mundiñanok.

Kenyarekin elkartzasuna



2014-05-31 Lakuntzan egun osoko egitaraua prestatu zuen Afrikako herrialde hartako umezurtz-etxe baten alde.

2014-05-31 Euskal festa. Etxarri Aranatzek ospatu zuen.

2014-05-31 Garraxi Irratia. Altsasuko irrati libreak festa ospatu zuen.



» Kirolak

2014-05-04 Erregionaleko futbol liga despedituta. Lagun Artea B6.a, Altsasu 8.a eta Etxarri 15.a.

2014-05-04 Igor Flores San Juango Duetloiko txapelduna.

2014-05-10 Futbola. Altsasuko kade-teak 1. mailara igo eta jubenilak 2. mailara jaitsi ziren. Altsasuko haurrak Nafarroako txapeldunordeak.



2014-05-11/18 Anne Lapuente eta Ander Villalobos Nafarroako txapeldunak. Nafarroako Abiadura Txapelketan eta Pista Txapelketan urrezko bina domina kolokatu zituzten.

2014-05-11 Olatz Azaretaren Salto-ki Errege Kopako txapeldunordea.

2014-05-14 Joanes Bakaikoa eta Sarasa Nafarroako txapeldunordeak Binakakoan.

2014-05-06 Ezkurdia Buruz Buruko-tik kanpo (22-18 Retegiren kontra).

2014-05-17 Magna Play off-etatik kanpo. Final laurdenetan erori zen, Santa Colomaren kontra.

2014-05-17 Gorka Santesteban bigarrena I. Hiru Mendi Traillean (27 km).

2014-05-17 Txomin Nagoreren profesional mailako azken partida, Mirandese-kin. 19 urtez profesionala izan da.



2014-05-18 Sakana Bizirik Nafarroako Mendi Lasterketen Klub txapeldunorde 2. Irati Maratoi erdian.

2014-05-19 Zabaletak Buruz Burukoari agur, lesionatuta.

2014-05-23 Tenis Ruborrek finallak. Aldasoro, Igoa, Apaolaza, Mtnez de Ibarreta eta Aristu txapeldunak.

2014-05-23 Futsalakana Kopa Racing San Migelendako (5-4 Arbizuri).

2014-05-24 II. Olazi-Urba Rallya. Iban Lpz. de Goikoetxea lehen sakandarra.

2014-05-24 Eneko Aramendia Euskadiko Erlojupeko txapeldunordea.

2014-05-25 Igor Flores San Juango Duetloiko txapelduna.

2014-05-25 105 bikote Andra Mari ikastolako Binakako Lasterketan.

CBASK txapeldun




2014-05-04 CBASKeko haurren mailakonek 8. Pirinioetako Saskibaloitza Torneo irabazi zuten. Nerea Misiego, jokalaria onena.

» Kultura



2014-05-03 Dantzari Txiki eguna. Altsasun Urretxuko, Ibarrrako eta Sakanako dantzariak elkartu ziren.

2014-05-04 Elai Alai eguna. Lakuntzako dantza taldeko 60 dantzari-ekin eguna ospatu zuen.



2014-05-07 Mugitu! Izenburu hori eman zion Tximeleta plaza taldeak bere aurreneko diskoari.

2014-05-10 V. Bertso Afari Txapelketa. Etxarriko Karriestu elkarte-ak antolatuta, 15 bertsolari neurtu ziren. Beñat Gaztelumendirendako izan zen txapela.

2014-05-10 Teatreves. IV. Antzerki Amateur Zikloa Altsasun.



2014-05-14 Kontzertu erraldoia. Aralarko Mikel Donea institutuko ikasleak Alaitzekoekin kontzertua eman zuten Altsasun.

2014-05-17 Nafarroako Bertso-eguna. Altsasun izan zen.

2014-05-17 Dantzari sarituak. Euskadiko Gipuzkoar Aurreku txapelketan Xabier Bengoetxea txapeldunordea eta Euskadiko Gipuzkoar Soinu-zaharrekoan Naroa Otxoa txapeldunorde izan ziren.

2014-05-23 Leihotik. Arrebote taldeak bigarren diskoa kalean.

2014-05-23 Altsasuarra musikalean. Jaione Diaz *Rugidos en silencio* musikalaren mustutzean parte hartu zuen, Salamancan.

2014-05-23 Pintxo asteburuak. Azken bi asteburuetan Altsasuko Xurru elkateko tabernetan.

2014-05-23 Ustarroz Iruñean. Arte Eskolako eskultura zikloko laguntzaileen erakusketan Miren Ustarroren lanak ikusteko aukera izan zen.

2014-05-26 Hutsaren itzalak. Jon Arretxeren liburua kalean.

2014-05-31 Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantari Jaialdi Nagusia. Lakuntzako eskolako, musika eskolako eta institutukoak Burlatan.

2014-05-31 Dantzari Txiki eguna. Orritz, Galtz Orratz, Elai-Alai eta Etorkizuna dantza taldeetako dantzariak Etxarrin elkartu ziren.



>> **Kultura**

2014-06-01 Gero Arte lehiaketa. Mikel Okiñenak antolatutako arte plastikoen lehiaketa izena eman zutenen artean Mikel Lasarte, Miren Ustarroz eta Helena Santano.

2014-06-06 Festival vasco 2.0 A Enrie Zelaia. Fran Idareta bere agurreko diskoa argitaratu zuen.



2014-06-06 Dantza topaketa. Altsasuko euskal dantza, dantza garai-kideko eta gimnasia erritmikoko ikasleak elkarrekin aritu ziren.



2014-06-10 Maria Markotegi Sariak. Euskara Zerbitzuak sormen lehiaketako sariak banatu zituen.



2014-05-13 Musika kalera. Irurtzungo musika eskola-ko ikasleek kontzertua eskaini zuten plazan.

Nafarroako Dantzari Eguna



2014-06-14 Orritz dantza taldeak Sakana guztira zabaldu zen dantzari eguna. Festa akabera Irurtzunez hartu zuen.

2014-06-14 Kantu altsasuarrak. Trasteando taldeak jendaurrean aurkeztu zuen *Altsasuko Herri Kantak II* diskoa.



2014-06-15 Pintura Azkarreko Txapelketa. Olatzagutian Felix Flamarique Martinezek irabazi zuen.

2014-06-17 Berrargitalpen digitala. Pello Mariñelarena Imaz etxarriarren 1993ko liburua Ataramiñek sarean jarri zuen.

2014-06-27 Itziar Nazabal. Hendaian eta Carpentrasen lanak ikusgai jarri zituen.

2014-06-28 Jubilatutako kantari. Altsasuko jubilatutako abesbatzak ikasturte akaberako kontzertua eman zuten euren egoitzan.

>> **Kirolak**

2014-06-01 Eneko eta Maialen Armendariz Nafarroako erlojupeko txapeladunordeak Iturmendin.



2014-06-01 I. Arbizu Enduro BTT. 52 bikerretan Markel Uriarte garaile.

2014-06-01 Anne Lapuente brontzeko Espainiako Kimuen Kopan.



2014-06-07 Urrezko Aizkora Nazabalen-dako. Urrezko 9. txapela jantzi zuen.

2014-06-07 Sakanako Parapente Eguna. 100 parte-hartzailetik gora.

2014-06-08 Lakuntza-Aralar Mendilasterketa. 200en artean Kataraineta Beregaña lehen sakandarrak.

2014-06-08 585 biker 19. Altsasuko BTT Zeharkaldian.

2014-06-08 Lagun Arte 3. mailatik preferentera jaisi zen.

2014-06-14 22. Irurtzungo Pilota Txapelketako finalak. Jubeniletan Espinal-Mariezcurrera (Irurtzun) garaile.

2014-06-14 Joxeja Maiza 17.a 19. Hiru Haundietan (100 km).

2014-06-14 June Kintanaren Espainiako errekor berria: Junior mailako disko jaurtiketan 54,16 m.

2014-06-14 Mikel Rubio azkarrena I. Ergako Trinitateko igoeran.

2014-06-14 Agirre eta Delais azkarrenak X. Aitzkozar Krosean. Moreno eta Beunza lehen sakandarrak.

2014-06-14 Yanira Aristorena Espainiako Trinketeko pala txapeladuna eta Euskal Herriko Ligako txapeladuna.



2014-06-20 Iratxo Botxa Txapelketa. Lirainak taldea txapeladun.

2014-06-21 Gorriti Berria Pilota Txapelketako txapeladunordea.

2014-06-21 Maialen Aramendia Nafarroako Txirrindulari txapeladuna.

2014-06-29 Etxarriko Triku Traila. 300en artean Razga eta Irigoien nagusi.

2014-06-29 Koxkataberna txapeladun. 4. Areta Futboleko Kluben Arteko Espainiako Txapelketa irabazi zuen.

Imanol Arregi, onena



2014-06-24 Magna Xota taldeko entrenatzaile Imanol Arregi areto futboleko Espainiako entrenatzaile onenaren saria jaso zuen.

>> **Sakanerria**

2014-06-02 Bi kontratazio geldiarazita. Irurtzungo Udalak musika eskolarako egin nahi zituen kontratazioak geldiarazi zituen Nafarroako Gobernuak.

2014-06-02 Bireziklatze tasa handitzea. Helburu horrekin proposamena aurkeztu zuten udaleko erregistroan Altsasuko Na Bai 2011k, PSNk, IUK eta UPNk.

2014-06-02 Uraren Gazte Foroa. Aralarko Mikel Donea institutuko ingurumenari buruzko ikerketen datuak, lanak eta bideoak Altsasuko kultur gunean ikusgai jarri ziren.

2014-06-02 Fisioterapia zerbitzua. Altsasuko Zelandi kiroldegian zerbitzu hori eskaintzen hasi zen.

2014-06-05 Alkohol kontsumo prebentzioa. Olatzagutiko ludotekako talde batek estatu mailako lehiaketa batean txapeladun.

2014-06-04-06 Selektibitatea. Sakanako 49 ikaslek egin zuten proba eta 47k gaitzitu zuten.

Munduko arrozak



2014-06-07 Irurtzungo plaza sukalde handi bihurtu zuen kultur artekotasun festak.

2014-06-07 Etxarriko gaztetxea. Zazpigarren urteurrena ospatu zuen.

2014-06-07/08 Txakur Elkartasun Jaialdia. Laugarren urtez antolatu zuen jaialdia Bocalan Biak Bat fundazioak Altsasun.

2014-06-08 Nafarroako Confint topaketa. Ingurumen konpromisoa

Gure esku dago



2014-06-08 Erabakitze eskubidea aldarrikatzeko giza kateak Durango eta Iruña lotu zuten, Sakanan barna.

sustatzeko nazioarteko gazteen konferentziaren Nafarroako topaketan parte hartu zuten Aralarko Mikel Donea institutuko eta Sagrado Corazon ikastetxeko ikasleek.

2014-06-09 Arkeologoak. Uharteko Arakilgo Zamartzen arkeologia indusketen bosgarren kanpaina abiatu zuten.

2014-06-10 Haur eskolendako dirulaguntza. Uharteko Arakil, Lakuntza, Arbizu eta Altsasuko udalek hitzarmen proposamen berria aurkeztu zuten Hezkuntza Departamentuan. Bide batez, aurtengo dirulaguntza osorik ordaintzea eskatu zuten.

2014-06-15 Lakuntzako Txingurri laguntza eta aisialdi taldeak antolatu zuten, herrian dagoen aniztasuna ospatzeko.

tutako programan 87 hurrek parte hartu zuten.

2014-06-24 Mank-en kontuak saneatuta. Halaxe zeudela azaldu zuen Kontu Ganberako presidente Helio Robledak Nafarroako Parlamentuan.

2014-06-25 Baleontzia. Pasai San Pedroko Ondartxoko Askorreta ontzian San Juan baleontziko gila jarri zen.



2014-06-27 Adierazpen askatasunaren alde. Eskubide hori murriztu nahi duten isunak salatzeako kontzertazioa egin zen Irurtzunen, udalak deituta. 7.180 euro baino gehiago ordainduak zituzten herritarrek isunetan.

2014-06-27 Udala eta biok euskaraz. EHEk altsasuarren eskaerak aurkeztu zizkion udalari eta elkarlaneari aritzeko prestutasuna azaldu zuten. EHEk sinatzaileei emandako urratsak azaldu zizkien.

2014-06-27 Udala eta biok euskaraz. EHEk altsasuarren eskaerak aurkeztu zizkion udalari eta elkarlaneari aritzeko prestutasuna azaldu zuten. EHEk sinatzaileei emandako urratsak azaldu zizkien.

2014-06-28 Hirigintza plana. Uharteko Udalak parte hartzearen bidez plana berritzeko talde eragilea osatu zuen, herritarrekin batera.

2014-06-30 Udan euskaraz. Altsasuko Udalak antolatutako programan 292 haur izan ziren.

Elkartasun festa



2014-06-07 Irurtzungo plaza sukalde handi bihurtu zuen kultur artekotasun festak.

2014-06-07 Etxarriko gaztetxea. Zazpigarren urteurrena ospatu zuen.

2014-06-07/08 Txakur Elkartasun Jaialdia. Laugarren urtez antolatu zuen jaialdia Bocalan Biak Bat fundazioak Altsasun.

2014-06-08 Nafarroako Confint topaketa. Ingurumen konpromisoa



Enplegua eta langile guztion eskubideak defendatzeko
Pobrezia eta langabeziaren aurka egiteko
Euskal Herrira aldaketa politiko eta soziala ekartzeko
Indarrak biltzeko, antolatzeko eta geure burua indartzeko...

guk LABekin bat

aldaketaren alde LAB

948 564 175 · Arkangoa 4 2. pisua · Altsasu · altsasu@labsindikatu.org



2014-11-23 Arbizuko odol-emaileak. Sei domina banatu ziren.



2014-02-08 Plaza zuhaitzik gabe.



2014-05-17 Dantzari sarituak.



2014-12-21 Sakana Iskiza gimnasia erritmikoa



2014-03-29 Arbizuko duatloia.



2014-04-25 Stencil ikastaroa. Irurtzungo gaztetxokoan egin zen.



2014-03-30 Haur kantari jaialdia.



2014-12-27 CBASK-en aurkezpena. 9 talde eta



2014-01-14 SEPA azaltzen.



2014-06-07 Parapente eguna.



2014-07-19 Altsasu Xtrem. 13 pertsonako 4 talde lehiatu ziren proban.



2014-04-13 Nafarroako Herri Kirol Jolasak



2014-09-13 Otadia Txapelketa.



2014-05-25 Europarako aukera.



2014-09-03 Vuelta Sakanan. Sakanako Aralar eta Burunda txirrindularitza klubek talde argazkia egin zuten Aralarako s



2014-10-05 Mendi Kluben eguna.



2014-10-11 Lip-duba Uhartan. Euskaraz bizitzeko nahia azaldu zuten.



2014-05-17 Aske, jendaurrean.



2014-12-31 Urtea despeditzera mendira. Z



2014-11-10 Biomekanika aztergai.



2014-11-14 SNEINN programa.



2014-10-25 Bertso saioa Itxasperrin. Alberdi eta Estanga aritu ziren.



2014-11-08 Jostailu trukea.



2014-11-21 Telp ikastaroa. Euskaraz hitz egitean eroso sentitzeko.



2014-05-10 Erakusketa Iturmendin.



2014-06-10 Mank-eko Kiroltasun Sariak banatuta. 11 sari banatu ziren.



2014-05-27 Orientazio proba.



2014-10-09 Educactif Sakanan.



2014-09-28 Olazti-Urbasa proba.



2014-07-19 Sakanako Triatloia.



2014-06-29 Koxka txapelkun Espainiako areto futbol klubun txapelketan.



2014-02-11 Aterpea mustuta.



2014-12-31 667 korrikalari San Silbestrean. Guztiek izan zuten tokia.



2014-11-22 Poesia errezitaldia.

» Sakanerria

2014-07-01 Aisialdia euskaraz. Lakuntzako Udalaren haurrendako eskaintza 37 haurrek erabiltzen zuten.



2014-07-02 25. urteurrena. Irurtzunaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak bere urteurrena ospatzeko ekitaldia antolatzen zuten.

2014-07-03 Ur festa goxoak. Hilean zehar Irurtzun, Uhartea, Lakuntza, Etxarri eta Altsasuko igerilekuak gazteei zabaldu zitzaizkien. Gozamen programaren barruan; sexualitatearen ikuspegi positibo eta errespetuzkoa eman nahi zaie.

2014-07-04 Laguntzen araudi proposamena. Altsasuko Geroa Baikirabazi asmorik gabeko erakundeek laguntza sozialak banatzeko araudi proposamena aurkeztu zuten udaleko gainontzeko taldeei.

2014-07-05 Markesina bidaiaria. Lakuntzako plazan zegoen markesina Bakaikun jartzeko lanak hasi zituzten.



2014-07-05 Auto klasikoak. Altsasuk ibilgailu klasikoaren topaketa hartu zuten.

2014-07-07 Sarrarterako sarbidea zabalagoa. Lakuntzako industrialderako bidea zabaltzeko lanak hasi ziren.

2014-07-10 Aisialdi etxolak. Zierdiko Udalak hirigintza planean aldaketak egitea erabaki zuen, lurzoruz ez urbanizagarrian aisialdi etxolak eraiki ahal izateko.



2014-07-11 6.332,76 hektarea. Lur azalera hori aitortu zuten sakandarrak Europako Nekazaritza Politi-

Arakilgo eguna



2014-07-26 Itxasperi eta Urritzola artean ospatu zen arakildarrek batu zituen eguna.

ka Bateraturako.

2014-07-11 Garagardogilea. Asier Agirre Lezea ziordiarra beste bi lagunekin batera abendutik Morlaco Beer garagardoa ekoizten ari zen.

2014-07-14 Uda-ikastaroak. Sakan-tzen Sareak web gune, komunikazio estrategikoa, Sakanako historia eta nekazaritza birsortzailea ikastaroak antolatu zituen garilerako.

2014-07-16 Ez ezetz da. Festatik errespetutik disfrutatzeko deia eginenez Irurtzongo festetan sexu erasoaren kontrako kanpaina egin zen.

2014-07-18 Aralurreko hondakinak. Enpresa itxi eta gero gelditu ziren hondakinak kentzea nahi zuten udalak eta Ingurumen Departamentuari bilera eske ari zen.

Haurrak goiaingeruarekin



2014-07-20 Aralarko Santutegiak 11. aldiz haurrak Aralarko goiaingeruari aurkezteko ekitaldia hartu zuen. Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiaren deia 70 bat haurrek erantzun zioten.

2014-07-21 Uda-gazte. Altsasuko Udaleko Gazteria Sailak 12 eta 16 urte bitarteko gazteei programazioa eskaini zuten estreinakoz udan.

2014-07-24 Palestinarekiko elkartasuna. Israelen Gazaren kontrako



eraso militarra salatzen eta palestinarrei elkartasuna adierazteko Arbizuko Udalak ekitaldia antolatu zuten.

Ekomartxa



2014-07-23 Frackingaren kontra eta des-hazkunderaren alde Ekologistak Martxan taldearen estatuko bizikleta martxak Sakana zeharkatu zuten.

2014-07-28 Portlandera bueltan. Kaleratze baliogabeagatik ELA kobilangile porlandegira lanera bueltatu ziren. Gero beste lau izanen ziren.

2014-07-30 Baso-lanetarako diru-laguntzak. Nafarroako 60 alkatek, sakandarrak tartean, horixe eskatu zioten Nafarroako Gobernuari.

2014-07-31 35/02ko epaia. Herriko tabernen auzian epaileek bi sakandar zigortu eta elkar bat des-jabetzea ebatzi zuten. Helegitea jarri zioten.

» Kirolak

2014-07-04 Sakanako Emakumeen VII. Frontenis Txapelketa. Laura-Leire eta Edurne-Vanesa txapelak ziren.

2014-07-04/06 Maialen Aramendia brontzezkoa Espainiako Txirringularitza Txapelketetan.

2014-07-05 Jose Luis Iriarte txapelak. Espainiako 3D Arku Txapelketa irabazi zuen.



2014-07-05 Erbiti eta Arrieta Tourrean. Uhartearra Movistarreko zuzendaria eta Hiriberrikoa bere aginduetara.

2014-07-07 Ezkurdia sanferminetako lau t'erdiko txapelak.

2014-07-08 Eneko Aramendia I. Urdiain Txirringularitza Trofeo garaile.

2014-07-11 Basabe-Joao (Andra Mari) Nafarroako Kadete mailako Trontza txapelak.

2014-07-11/12 Joxeja Maiza 6.a Goierriko 2 Handietan (88 km).

2014-07-11/12 Nazabal-Saralegi Nafarroako Aizkorako Binakako txapelak.

2014-07-14/25 Sakanako Futbol Campusa. 15 kide lehen txandan eta 19 bigarrenean.

2014-07-19 100 triatlota Sakanako XIII. Haur Triatlota. 20 gaztetxo aritu ziren Sakanako Triatlota Campusean.

2014-07-22/29 Sakanako waterpolo eta kayak jardunaldi arrakastatsuak.

2014-07-26 Olaztiko 43. San Migel Pilota Txapelketako finalak. Ansa-Legarreta txapelak.

Kintana munduko 8.a



2014-07-22/27 Oregoneko Eugenen jokatu-tako Junior Mailako Atletismo Mundialetan finalerako sailkatu zen June. Bakaikuarra zortzigarren izan zen diskoi jaurtiketan (53,36m).

» Kultura

2014-07-07 Bertso Udalekoa. Irañetan 12 eta 14 urte bitarteko 35 gaztetxo izan ziren, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak antolatuta udalekuan.



2014-07-10 Urrezko Zelaia. Iruñeko Narpardi elkarteak Gallico de Oro saria eman zion Enrike Zelaiari.

2014-07-15 Zinema kalera. Irurtzunen sei film beste horrenbeste asteazkenetan ikusteko aukera izan zen Foru plazan.

2014-07-18 Gurutze-bide euskalduna. Halako bat Iturmendin zela jakinarazi zuten Nicolas Arbizuk eta Mikel Markotegik, Ezpilleta elkarte kideek.

2014-07-18 Aniztasunaren espediente. Jose Ramon Anda eta Txuspo Poyoren obra bana ikusgai zuden Bilboko Rekalde aretoan. Alberto Ipiña eta Begoña Bidaurrazaga bildumako piezekin sortutako erakusketa zen.

2014-07-19 Aztarnategia ezagutzeko. Aurreko urteetan bezala, larunbat goizetan, Uhartea Arakilgo Zamartzeko arkeologia-industretara bisita gidatuak egiten hasi ziren.

2014-07-22 Izaroko teilak. Izarro irla Bermeoren jabetza dela adierazteko urtero teilak botatzen da. Aurtengo Txuspo Poyok egindako titaniozko bat izan zen. Altsasuarraren Izaro proiektuaren zati da.



2014-07-26 Akordeo ikastaroa. Hauspo Alai elkarteak antolatu zuen Altsasun eta bi astez ikasleak Alexey Artemyev irakaslearekin trebatu ziren. Kontzertu batekin despeditu zuten ikastaroa.

ESKAINITZA

Urtarrilaren 12tik 31ra.

Ordaindu 6 hilabetetan interesik gabe

Garaje Urbasa, S.A. 948 562 456 · Gasteizko etorbidea · Altsasu

Mantenimendu zerbitzuetan

%25 era arteko deskontuak



Wir leben Autos.

Beti sortzen duguna | Saldu ondokoa zaintzen dugu | Opel

>> **Kultura**

2014-08-01 Egile-eskubideengatik ordaintzera. Horretara behartzen du Espainiako Gobernuaren dekretu batek Altsasuko liburutegia.

2014-08-07 Ingalaterrako bira. Erkundengo Ama abesbatzak birako hiru kontzertuetako aurrenekoa eman zuen.



2014-08-14 Arakil argazkitan. Arakilgo Udalak ibarrari buruzko argazki lehiaketako sarituak jakinarazi zituen. Jaiak eta tradizioa atalekoa Garbiñe Perkazendako izan zen. Ondarea eta paisaiak sailekoa, berriz, Mikel Perkazendako izan zen. Herri-tarren saria Migel Angel Laplanak eskuratu zuen.

Ihabarko antzerki taldea



2014-08-23 Zazpigarren urtez antzerki emanaldia eskaini zuen. 14 ihabardar, Jon Barbarinek zuzenduta, *Una aventura en la basura* antzezlanaren prestatu zuten.

Alkate dantza



2014-08-24 Haize Berriak bandak dantza doinuaren bertsioa mustu zuen Lakuntzan bertan herriko musikarien laguntzarekin.

2014-08-30 Nafarroako Zirko Jaialdia. Hamairugarren edizioan hiru konpainiaren emanaldia hartu zuen Altsasuk.

>> **Kirolak**

2014-08-08 Ezkurdia-Merino II.a Gasteizko Andra Mari Zuriaren Binakako Txapelak.



2014-08-17 Zubieta-Irujo Zarauzko Torneoko txapelak. 17-22 galdu zuten Olaizola-Zabalaren kontra.

2014-08-17 Urrezko Kopa Floren Nazabalendako. Nazabalek (31:01) 53 segundo ateraziz kion Atutxari (31:54).

2014-08-18/24 Maialen Aramendia zilarrezkoa Espainiako Pista Txapelketan. 200 m eta 500 m abadura probetan bigarrena izan zen.

2014-08-18/24 Hodei Mazkianendako zilarra eta brontzea. Espainiako Pista Txapelketan kilometroko proban bigarrena eta keirinean hirugarrena izan zen.

2014-08-23 Beñat Katarain azkarraren Lakuntzako Guardetxe Igoeran. 15 korrikalarien artean gailendu zen (1:00:18).

2014-08-29 Zabalera-Irujo Donostia Hiriko txapelak. Olaizola eta Zabalari 22-12 irabazi zieten.



2014-08-31 ESAI Tek Vueltaren "erabilera politikoa" salatu zuen. 100 txirrindulari Uharte Arakildik Aralarreko igo ziren.

IV. Sakana Burunda



2014-08-23 180 txirrindularik hartu zuten parte Burunda Txirrindularitza Taldeak antolatutako IV. Sakana Burunda martxan. Aralarako San Migelera kronoigoeran Iñigo Arellano altsasuarra 3.a izan zen (32:32).

>> **Sakanerria**

Artzain eguna



2014-08-31 Aralar Mendi elkarteak antolatuta, Uharte Arakilek 47. aldiz hartu zuen artzaintzari eskainitako festa.

Arruazuko mapa



2014-08-01 Arruazuko toponimoak jasotzen dituen mapa aurkeztu zuten Patxi Satrustegik eta Migel Ganboak.

2014-08-02 Adierazpen askatasuna. Hura ukatzen zuen ikur handia izan zen festen hasieran Etxarri Aranzko udaletxean, epai batek fatxadan inolako esaldi, ikur edo irudi jartze debekatu baitzion udalari.

2014-08-06 Baso antolaketa. Arakil, Irurtzun eta Irañetako Udalek proiektuak egiteko Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak jasoko dituzte.

2014-08-07 PSN errausketaz. Nafarroako Hondakin Plan berriaren errauskailurik ez egitea eskatu zuen PSNk. Bost egun geroago porlandegian hondakinak erretzea egoki jo zuen.

2014-08-10 Beriaingo erromeria. Mendi gaineko ermitan Sakanako eta Olloarango jende ugari elkartu zen. Unanun herri bazkaria egin zuten eta 70 pertsona elkartu ziren.



Sakanako Dendarien Elkarte



2014-08-12 Elkarte sortzeko aurreneko bilera egin zuten Utzaganen.

2014-08-12 Gaztetxea eta Foruzainak. Azken horiek Altsasuko gaztetxean sartu nahi izan zuten. Ordu bat lehenago Ernai gazte erakundeak Eroskin Israelgo produktuak saltzearen kontrako protesta egin zuten.

2014-08-14 Plazaolako bide berdea. Sakanako zatiaren tramitazioa aurrera, desjabetze prozesua hasita.

2014-08-15 Trenbideak 150 urte. Madril eta Irún arteko trenbidea mustu zela 150 urte bete ziren.

2014-08-19 33 langabetu kontratatuta. Sakanako toki-erakundeek 33 langabetu kontratatu zituzten Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza bati esker.

2014-08-25 Segurtasun falta eta Vuelta. Aralarako santutegirako pistako zartatuak zirela eta igoerak segurtasun falta zuela salatu zuen

Plaza mustu



2014-08-21 Horretarako egitarau berezia prestatu zuten Lakuntzan.

Uharte Arakilgo Udalak, Espainiako Itzuliko antolakuntzak zartatuak porlanez estali zituen.



Sakana, haritzen lurra



2014-08-24 Basotik itsasora. Izen hori du Altsasun, Dantzaleku aldean, mustu zuten hariztien interpretazio guneak.

2014-08-30 Ospa Eguna. Polizia indarrak eta militarrek alde egiteko eskatu zuten Altsasun.





EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com



Acrylcolor

SISTEMA BERRIA



KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 · Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

>> Sakanerria

Eskola berria

2014-09-08 Ikasturte berriarekin Iturmendin Arrano Beltza eskola berria mustu zuten. Ikastetxe zaharren erabilera zehazten hasi ziren herrian.

2014-09-01 Aldaketa Mank-en. Adolfo Araiz kudeatzaile-kontu-hartzaileak urte baterako eszedentzia hartu zuen. Kudeaketa lana Natalia Razkin Sagastibeltzak hartu zuen eta Nerea Malkorrek kontu hartzailearena.

2014-09-05 406 egonaldia aterpean. 2013an Altsasuko etxegabeen aterpetik 382 gizon eta 2 emakume pasa ziren.

2014-09-07 Zorri Azoka. Aurreneko urtean ostiral arratsaldetan izan ondoren, igande eguerditara pasa zen.

2014-09-07 Otsoportillo. Urbasan elkartu ziren 1936ko estatu kolpearen ondorioz eraildakoak gogortzeko.

2014-09-08 Zorrak. EHNEK salatu zuenez Aldanondok esne sektoreko abeltzainekin zorrak zituen.



2014-09-10 Hondakin kudeaketaz ikasten. Hiru egunez hautetsi sakan-darrak Kataluniako hondakin kudeaketa ezagutzen izan ziren.

2014-09-12 Guardia Civila Altsasan. Festa bezperako arratsaldean



Alde Zaharrean makina bat herritar identifikatu eta arakatu zituen. Tabernetan kontrolak eta miaketak egin zituen.

Irurtzun eta Arakilgo azoka

2014-09-14 Bertako aziendekin batera, artisau postuak eta beste izan ziren azokaren bigarren edizioan.

2014-09-15 Ikurrina lapurtu. Altsa-

suko EAJ-PNVren batzokitik ikurrina lapurtu zuten.

2014-09-16 Errausketarik ez, balorizazioa bai. PSNk agorriean agertutako iritzi bera azaldu zuen Jose Javier Esparza Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilariak.



2014-09-18 Sakantzen Sarea saritua. Jon Etxeberria Ijurrak Madrilen jaso zuen Universidad Europearen fundazioak emandako Gazte Ekintzaile Sozialen sariak.

2014-09-20 Errausketa "egiazki baztertzea". Horixe eskatu zuen 3MB plataformak, porlandegiari baimentzen zaiion bitartean dago-elako halakorik.



2014-09-22 Madrilen epaiketa. Segiko kide izateleporatuta 28 gazte epaitzen hasi ziren Espainiako Auzitegi Nazionalan. Haien artean Aina Lara Ladron eta Imanol Salinas zeuden. Azken hori Loiolako Aske Gunean atxilotu zuten. Epaiak espeteratzea agindu zuen.

2014-09-23 Dekretua bertan beherra. Epaitzeko Irurtzunge oinarriko osasun eskualdea hartzen zuen gobernuaren dekretua baliogabetu zuten gizarte-langile kargurik ez aurreikusitakoak.

2014-09-24 Fusilatuen identitate bila. Urbasako saroiko lezean 1936an hildako sei pertsonen gorpuak agertu ziren. Haiek identifikatzeko, seneren bat galdu zuten familiek DNA emateko deialdia egin zuten.

2014-09-24 Plazaola Turismo Partzuergoa. Arakilgo Udalak kide egitea erabaki zuen, Plazaolako ibilbidea ibarraren garapenerako aukera dela ikusita.

2014-09-25 Kale konponketak. Arakilgo Udala Satrustegiko kaleak kon-

Euskalduntzen

2014-09-24 Ehun bat sakandar AEKn euskalduntzen hasi ziren.

pontzen ari zen.

2014-09-25 Podemos-Ahal Dugu. Altsasuko zirkulua jendaurrean aurkeztu zen.

2014-09-26 Deklaratzeari uko. Sei altsasuarrek (preso ohiak batzuk) Guardia Civilaren Iruñeko egoitzan deklaratzeari uko egin zioten. Zitzioak festetan presoan alde egingdako brindisarekin zuen zerikusia.



2014-09-26/27 Topaketa Irekiak. Sakantzen Sarea ibarreko historia oinarri hartuta topaketa irekiak antolatu zituen.

Odol-emaileak

2014-09-27 Adonak 23 altsasuar omendu zituen, urrezko 10 domena eta zilarrezko 13 banatuz.

2014-09-27 Debekua. Gobernu ordezkariak Gudari Egunean Altsasan manifestazioa debekatu zuen.

San Migel

2014-09-29 Jendetza elkartu zen Aralar-ko santutegian sailduaren egunean baita aurreko asteburuan ere.

2014-09-30 Tira-birak Ziordian. Udal bilkura eta gero Bilduko zinegotzi batek izandako "jokabide onartezina" salatu zuen Geroa Baik. Bildutik adierazi zuten eztabaidea ez zuela zinegotziak eragin.

>> Kirolak

2014-09-01/02 Irurtzunge Haur Botxa Txapelketako finalak jokatu ziren. 1 mailan Albizu, Sagardia eta Martiarena eta 2. mailan Albizu, Martiarena eta Arregi txapeldun.

2014-09-05 Lekeitioko Pilota Txapelketa Zabaleta eta Irujorendako.

2014-09-06 Erbiti hirugarrena Vuel-tako La Camperona etapan.

2014-09-06/07 Etxarrik eta Altsasuk erregional mailari ekin zioten. Etxarri lider jarri zen 21ean.

2014-09-10 Jorge Azanza Euskadi Txirrindularitza Fundazioko amateur taldearen zuzendari.



2014-09-11/21 Alberto Ongaykurrez-ko domina Mexikoko mundialetan.

2014-09-12 Magna Nafarroak ligari ekin zion. Taldean 4 irurtzundar.

2014-09-13 Altsasuko 45. Otadiko Kristo Deuna pilota txapelketako finalak. Elezkanok I. Gorriti txapeldun.

2014-09-13 Iraitz Goñi Larra-Larrañen txapeldun (100 km).

2014-09-14 Lagun Arteak preferente mailari ekin zion.

2014-09-15 Altsasuko 85. Txirrindularitza Proba Zuritarendako.

2014-09-20 Moreno eta Beunza garaila Ergoienako Biran.

2014-09-20 Nordin Jdik Ultra Pirineu (103 km) ultra traila osatuz (427.a, 22 ordu t'erdia).

2014-09-21 Aritz Munarriz 5.a Uhartetara Berriain km bertikalean.



2014-09-21 Fernando Urta txapeldun Los Arcosen, Zona Norte Txapelketarako supermotard proban.



2014-09-28 400 partaide 21. Sakanako Bizikleta egunean.

2014-09-28 Beraza 7.a Olatzagutia-Urba mendia lasterketan.

2014-09-28 Zubieta eta Irujo San Mateotako Binakako txapeldunak.

Vuelta Sakanan

2014-09-03 Lizarragatik sartuz, Uhartetara Arakilgo pistatik Aralar-ko santutegira igotzeko. Milaka pertsona bildu ziren. Euskal ikurren eta Rural Kutxaren marea berdearen presentzia nabarmena izan zen. Fabio Aruk irabazi zuen etapa.

>> Kultura



2014-09-05 Erloju zaharberria. Ziordiarrek elizako erlojuaren zeneren tresneria zaharberrituta ikusteko aukera izan zuten.

2014-09-05 Basoko Mari. Espazio berriak atek zabaltu zituen Altsasun. Paz Treukil margolari maputxearen margolanak izan ziren lehen erakusketa.

2014-09-08 Liburu elektronikoak maileguan. Irurtzunge, Etxarri Aranzako, Altsasuko eta Olatzagutiko liburutegiak, Nafarroako sarekoak, liburu elektronikoak mailegatzen hasi ziren.

2014-09-13 Anda Arantzazun. Gaur taldearen ondorengo belaunaldiko zortzi eskulturen lanekin erakusketan zabaldu zen Arantzazun, tartean Jose Ramon Anda zegoen.



2014-09-14 Zelaiaren despedidako. Altsasuko festetako herri bazkariaren ondoren Enrique Zelaiak jendaurreko bere azken kontzertua eman zuen.

2014-09-19 Extremadurako kultur jardunaldiak. La Encinak 14. aldiz antolatuta, Jon Maia eta bertso-eskolarako bost bertsoari zabaltu zuten egitaraua.

2014-09-19 Kultur astea. Olatzagutian hasi zen, udalak antolatuta, festetan aurreko girotzeko.

2014-09-20 Arakilgo erromanikoa. Hura ezagutzeko irteera antolatu zuten Arantzadi zientzia elkarteak eta Astrolabio Románico elkarteak.



2014-09-20 Elkarrekin plaza. Hala aritu ziren Etxarri herriko abesbatza, Etorkizuna dantza eskola eta Burundar txistulariak.

2014-09-21 Paperetik eszenatokira. Zoila Berastegik aurreko urtean Iruñeko antzerki-testuen lehiaketa irabazi zuen. Arbizuarrak obra mustu egin zuen eta, gainera, aktore izan zen bertan.



2014-09-28 Omenezko kontzertua. La Cigarra txaranga Juanjo Amezararen omenezko kontzertua eskaini zuen festetan.

>> **Kultura**

2014-10-01 15 urteko errebasoa. Ziordiko liburutegiko azken 15 urte-etako ekitaldien berri ematen zuten argazki erakusketa mustu zen.

2014-10-03 Antzerki zikloa. Irurtzunen lastaileko lehen lau ostiraletan antzerki emanaldiak izan ziren.

2014-10-04 Udazkeneko kultur agenda. Arakilgo Udalak jarduerak egitaraua abian jarri zuten.

2014-10-10 Proiektore berria. Altsasuko lortia kultur gunean zinema sasoi berria areto nagusiko proiektore digital berriarekin mustu zuten.

2014-10-15 Desvarios varios. Altsasuko taldeak ehendiskoak karrikaratu zuten.

2014-10-17 Altsasuko Arte Azoka. 26 artista sakandarren eta 14 gonbidaturen lanak hartu zituen.



Gorriti omendua



2014-10-18 Uharteko Arakilen Felipe Gorritiren jaiotzaren 175. urteurrena izan zuten gogoan hitzaldi eta kontzertuarekin.



2014-10-20 4nek. Musika talde sakandar berriak kantu bat aurkeztu zuten estatuko lehiaketa batean.

2014-10-22 Hegalakastinduz. Hesian taldeak disko berria argitaratu zuten.

2014-10-24 Zerua berun. Castillo Suarezek idatzi eta Maite Mutuberriak ilustratutako albuma aurkeztu zuten Markina-Xemeinen. Peru Abarka lehiaketako lan saritua zen.

2014-10-30 Irakurle euskaldunak. Etxarriko irakurketa taldeak bere bigarren ikasturtea abiarazi zuten.

>> **Kirolak**

2014-10-04 Barga-gain. Baza Sport taekwondo txapelketan lan bikaina egin zuten altsasuarrek.



2014-10-05 Nazabalek Nafarroako 9. txapela jantzi zuten Etxarrin. Euskal Herriko finalean aritzeari uko egin zion, osasun arazoengatik.

2014-10-05 Beraza 4.a eta Munarritz 5.a Etxarriko 39. Mendira Joan Etorrian, 104 korrikalariren artean.

2014-10-05 Mendizale ugari Nafarroako Mendiko Kluben Egunean. Salgado, Iglesias, Lopez eta Bengoetxea omendu zituzten Altsasun.

2014-10-17 Ezkurdia lau terdian aurrera Altsasun. Zabaleta kanporatetik zetorren Lasari irabazi zion.

2014-10-18/19 Ioseba Fernandez Espainiako txapelduna. 300 metroko erlojupekoa irabazi zuten, Iruñean.



2014-10-18 Inoizko ondo lasterketarik arrakastatsuenaren Altsasun. 280 korrikalari, 113 emakumezkoak.

2014-10-18 Iribarren (haur) eta Carballo (heldu) txapelkun Banakako Iratxo Botxa txapelketan.

2014-10-25 Mikel Zubiria eta Izaskun Beunza azkarrenak 14. Sakanako Herri Lasterketan, Irurtzunen.

2014-10-25/26 II. Futsalsakana areto futbol txapelketaren (8 talde) eta Kimuen Futbol 8 Topaketaren (10 talde) hasiera.

Urbasako igoera



2014-10-04 60 pilotu lehiatu ziren Urbasako igoeran eta Pantxo Egozkue izan zen azkarrena. Sakandarren artean Garikoitz Flores izan zen onena, 4. postuan.

>> **Sakanerria**

2014-10-03 Salvadorren heriotza. Altsasuko zinegotzi sozialista Braulio Salvador hil egin zen.

2014-10-03 Gaztetxeak 24 urte. Altsasuko Gazte Asanbladak urteurrrena ospatu zuten asteburuan.



2014-10-04 Hiriberriko erabilera antzeko gela. Arakilgo haizea bideoaren emanaldiak mustu zuten.

2014-10-05 Frankismoko biktimei omenaldia. Altsasuko Udalak plaka jarri zuten Gure Etxean.



2014-10-06 Birziklapen etxola. Hondakin bereziak jasotzen dituen etxola jarri zuten Etxarri Aranatz.

Mintzakide



2014-10-08 Euskaraz hitz egin nahi duen jendea elkartzen duen programa martxan jarri zen.

2014-10-10 Gazte Txokoa. Uharteko Arakilen zabaldu zituen ateak.

2014-10-11 Lip-duba Uhartan. Uharteko Arakilen euskaraz bizi nahi dugu aldarrikatu zuten.



2014-10-11 Gaixotasun erakustaldia. 3MB plataformak ospitale erral-

doi bihurtu zuten Altsasuko kultur gune aurreko espazioa errausketa-oren ondorioak erakusteko.

Txistor eguna



2014-10-12 Arbizuk seigarren aldiz hartu zuten festa.

2014-10-12 Emilio Iguskizari omenaldia. Guardia Zibil batentiroak jota hil zela 80 urte bete ziren. Altsasuko Memoriak omenaldia egin zion.



2014-10-13 Diru gehiago. Altsasuko Ongizate Batzordeak gizarte larrialdietarako 2.500 euro gehiago bideratzea erabaki zuten.

2014-10-14 Gazte arakildarren beharrak. Arakilgo Udalak galdegia zabaldu zuten haien artean.



2014-10-14 Etxarren goi frontoia. Arakilgo Udalak eta Etxarren goi Kontzejua Aranburu frontoia erabilera zahazten duen hitzarmena sinatu zuten.

2014-10-15 Soilik seitan arazoak. Mank-ek jakinarazi zuenez, atez ateko 250 zintzilikario puntuetatik soilik seitan zeuden arazoak. Sei horietan %90ak ongi birziklatzen zuten.

2014-10-16 Kimaren agurra. Altsasuko euskara taldeak desagertzea erabaki zuten.

2014-10-19 PSNren primariak. Amanda Acedo izan zen Altsasun garaile, Nafarroan Maria Chivite.

2014-10-19 Oinez Erronka. Iñigo Arizta ikastolako taldeak irabazi zuten.

Nafarroa Oinez.

2014-10-20 Sakanako Gida. Ibarreko etxetara banatzen hasi ziren Bie-rrik fundazioak argitaratutako Sakanako Gidaren 8.500 aleak.



2014-10-21 Parametroa aldatzeko eskaera. Sortutako hondakin kopuru-erabatik ordaintzeko proposamena egin zion Mank-eko buru Aitor Karasatorrek Gobernuari.

2014-10-24 www.etxarrikoahotsak.com. Herriko ahozko ondarea jasotzen duen web orria aurkeztu zuten Etxarri Aranatzko Udalak.

2014-10-24 Saria ingurumen lanari. Altsasuko Sagrado Corazon ikastetxeak Atresmedia fundazioaren saria jaso zuten.



2014-10-26 Gaztain Moztea. Bakailun ospatu zen. Goizean basoan izan ziren eta ondoren elkartean taile-rrak eta erakusketa.



2014-10-28 Autobus berriak. Sun-undegui Madrilen bi autobus modelo berri aurkeztu zituen.

2014-10-28 Euskaltzaleen bilera. Euskaraz bizitzeko zailtasunak sortzen dituzten Sakanako eremuetan euskaraz bizitzeko urratsak ematera nola bultzatu aztertu zuten.

2014-10-31 Bocalan Biak Bat Parlamentuan. Laguntza txakurren inguruko legedi baten beharra aldarrikatu zuten.





Zorionak 20. urtemugan!!!

**ETXARRI ARANATZ • ITURMENDI • BAKAIKU • ARBIZU • LIZARRAGA • UNANU
DORRAO LAKUNTZA • ARRUAZU • UHARTE ARAKIL • IRAÑETA • IHABAR • HIRIBERRI**

Larrañeta, 9 • 31820 Etxarri Aranatz • Tel.: 948 46 02 86 • Faxe: 948 46 03 43 • etxarri@ikastola.net

» Sakanerria

Gazte eguna



2014-11-01 Irurtzongo eta Arakilgo Gazte Asanbladak antolatuta ospatu zen Irurtzuenen.

2014-11-02 **Omenaldia.** Josefina Arregi klinikako lagunen elkarteak urteurren ekitaldian Vicente Madoz eta Guillermo Nagore omendu zituen.

2014-11-03 **Kalekonponketak.** Zior-diko lau kaleetan lanak hasi ziren.

2014-11-04 **Azarokotea.** Sakanako Dendarien Elkarteak establezimenduak azaroko zozketa martxan.

2014-11-05 **Euskara menderatu gabe.** A erudian ikasten dute ikasleak %15,1. B erudian %4. Euskarazko erudian, D-an, %80,9 ari dira, inoizko daturik onena.

2014-11-05 **Euskararen ordenantza.** Altsasuko Udalak euskararen erabilera eta sustapena arautzen duen ordenantza onartu zuen.



2014-11-07 **Ikurrina kendu.** Epai-keta egin bitartean Altsasuko Zelai kalean dagoen mastatik ikurrina kentzeko epaia eman zuen auzitegiak.

2014-11-09 **Patata operazioa.** Hermitas delos Pobres mojen dako jakiak bildu zituzten.



2014-11-11/18 **Babesa plan estratetikokoari.** Sakanako ordezkariak Nafarroako Parlamentuko taldeekin elkartu eta Sakanako Plan Estrategikorako haien babesa jaso zuten.

2014-11-11 **Ahozkotasuna lantze-egatik saria.** Aralarko Mikel Donea institutuak Hezkuntza Departamentuaren saria eskuratu zuen.

Bidelagun elkarteak



2014-11-13 Sakanako turismo arloko eragile guztietara zabaldu zen.

2014-11-13-15 **Confint.** Ingurumenari buruzko topaketan Aralarko Mikel Donea eta Sagrado Corazon ikastetxeetako ikasleak izan ziren.

2014-11-13 **Asiako erlamina.** Intsektu horren habi bat Altsasuko Geltoki auzoan atzeman zuten.



2014-11-14 **SNEINN.** Langabeek ezin-tzailatasunean beste aukera bat dela ikustarazteko programari buruzko informazio saioak hasi ziren.

2014-11-14 **Sakabanaketa auzitegian.** Euskal Preso Politikoen Kolektiboko kideak Espainiako Auzitegi Nazionalean sakabanaketaren kontrako eskaerak aurkezten hasi ziren.

2014-11-15 **Sakanako Euskaltzaleen Bilgunea.** Etxarrin egindako bilera euskaltzaleak elkar ezagutzeko eta koordinatzeko bilgunea sortzea erabaki zen.

2014-11-17 **Munduko Txapelketa.** Unanuko Balda-Artolak, Olatzagutiko Quesos La Vasconavarrak eta Julen Karasatorrek eta Nerea Luisen ekoiztutako gazte sari bana lortu zuten Londonen.



2014-11-20 **Errigora.** Erriberako euskalgintza laguntzeko 412 zare eskatu zituzten sakandarrek.

Valorg proiektua



2014-11-19 Hondakin organikoaren balioztatzearen inguruko Europako proiektu batean parte hartzea sinatu zuen Sakanako Mankomunitateak. Frantziako, Belgikako, Eslovakiako eta Txipreko erakundeekin batera ariko da.



2014-11-22 **Lakuntzako Pertza.** Elkarteak 50. urteurren festa handiarekin ospatu zuen.

2014-11-22 **España laztana.** Etxarriarrek auzolanean egindako bideoklipa aurkeztu zuten. Bi herrialdeen arteko dibortzioaren kantakizuna jasotzen du.



2014-11-23 **Arbizuko odol-emaileak.** Urrezko eta zilarrezko hiru domina banatu zituzten.



2014-11-25 **Kontzentrazioak.** Emakumeenganako indarkeriaren kontrako eguna zela egin ziren Etxarrin, Altsasun eta Olatzagutian.

2014-11-27 **Bikaintasun saria.** Zelandi eskolako saria jaso zuen.



2014-11-28/29 **Jaki bilketa.** Nafarroako Eliekagai Bankuak jakien bilketa handia egin zuen.

2014-11-29 **Arbizuko ikastola.** 40 urte bete zituela eta sortzaileak omendu zituzten.

» Kirolak

2014-11-04 **Magna errege kopatik kanpo,** Santiagoren kontra galduta.

2014-11-05 **Joanes Bakaikoa Nafarroako Jubenil mailakotxapeladuna.** (18-2 Juankorenari).



2014-11-07 **Rural Kutxako afizionalak eta profesionalak Tuteran kontzentratuta** 2015 denboraldirako.

2014-11-09 **Sakanako Saskibaloitopaketak abian.** Premini mailan.

2014-11-09 **96 sakandar Behobian.** Martiarena eta Beunza azkarrenak.

2014-11-09 **Beraza txapeladun I. Tresvisoko bertikalean.**

2014-11-15 **Iker Mintegi, Fermin Azkargorta eta Iñigo Maiza txapeladunak** Nafarroako Duetloi NKJ-tan.

2014-11-15 **Igor Flores 5.a eta Garcia de Eulate 6.a Nafarroako Triatloi eta Duetloi Zirkuituan.**

2014-11-16 **Ezkurdiak agur laut'erdinari.**

2014-11-22 **Imanol Arregi eta Javi Eserverri Murtzian omenduak.**

2014-11-24 **Gaztetasunaren balioa saria Alex Mariñelarendako** "ezbeharrak gainditzeko grinagatik".



2014-11-30 **Lasa txapeladuna eta Aristorena, Ansotegi eta Parot txapeladunordeak** Nafarroako Pala Txapelketan.

Munduko txapeladuna



2014-11-06/15 Argentinako Rosarion jokatutako munduiletan urrezko domina lortu zuen Ioseba Fernandez irrizarlari iturmen-diarrek 500 metro sprintean eta zilarrezkoa 200 metroko erlojupekoan.

» Kultura



2014-11-04 **Hiru keinu iraganari.** Izenburu hori zuen Begoña Salazarrek, Koldo Arnanzek eta Jose Mari Olmosek Altsasun zabalduetako erakusketak.

2014-11-08 **Feria objektibotik.** Altsasuko Mendigoizaleek ferietako argazki rallyko sariak banatu eta erakusketa zabaldu zuten.

Marino Izeta



2014-11-14 Bertso sarietako kanporaketa jokatu zuten sei bertsolarik Arbizun; tartean Unai Artieda eta Saats Karasatorre.

2014-11-14 **Ikerketa liburua.** Juan Madariaga Orbearen *Sociedad y lengua vasca en los siglos XVII y XVIII* liburua aurkeztu zuen.

2014-11-17 **Euskarazko irakurzaletasuna.** Hori sustatzeko Etxarrin kanpaina martxan jarri zuten, ilbeltza akaberara arte.

2014-11-22 **Orritz dantza taldea.** Kide eta kide ohien dantzaldiarekin eta afari batekin ospatu zuten taldearen 25. urteurrena.

2014-11-22 **Poesia errezeitaldia.** Uharteko Arakilgo jubilatuen elkartearen bost olerkari aritu ziren errezeitatzen.



2014-11-28 **Morkots eta Jartur.** Bie-rrik-ek Guaixe-n argitaratutako zintekin liburuxka argitaratu zuen.



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)

>> **Kultura**

2014-12-03 Euskal Ekitaldiak. Aizpeak antolatutako egitaraua mar-txan jarri zen.

2014-12-05 13 balas. Vendettak disko berria aurkeztu zuen. Doan deskargatzeko aukera eman du taldeak.



2014-12-17 612 euro liburua hizketa-gai. AEK-ko ikasleak Jon Arretxekin hizketaldia izan zuten.

2014-12-18 Mecma zigilua. Horixe eskuratu zuten Haize Berriak bandak eta Etxarri Aranazko abesbatzak. Herritarraketa enpresak biera-kundeek kultur-mezenas bihurtzeko.

2014-12-19 Haurrak ilustratzaile. Aitziber Alonso ilustratzaileak eta Yolanda Arrieta idazleak tailerra eman zuten Altsasun.

2014-12-19 Ardiaketa beste. Idoia Zufiaurrek, Chuffik, koadroak Kaluxan ikusgai jarri zituen.



2014-12-20 Felix Linares. Haize Berriak bandak Zumarragako bandarekin eta ETBko aurkezlearekin batera soinu banden musikarekin osatutako programa eskaini zuen.

Kultur etxea mustuta



2014-12-27 Lakuntzan ate irekien eguna, herriko artisten erakusketa, herri eskultura, ekitaldia eta auzatea egin ziren.

>> **Kirolak**

2014-12-03 Joanes Bakaikoa Nafarroako Gazteen lau t'erdiko txapel-duna. Unai Lasori 18-6 irabazi zion.

2014-12-08 Altsasuko Barricartelasterketa. Etxeberria eta Calvillo garaile.

2014-12-08 SD Altsasua futbol taldearen aurkezpena. 235 jokalaririk dira, 15 taldetan banatuta.

2014-12-09 Pablo Urtasun Japoniara eta Xabier Zabalo Norvegiara. Urtasun Team Ukyon ariko da eta Zabalo Sepura Toyota Racingera.

2014-12-13 Sakanako Xake Txapelketa Javier Cinzarendako. Cesar Razkin lehen sakandarra.

2014-12-14 Omenaldia aizkolari veteranoei. Sakanako Herri Kirol Jardunaldian Axio Flores, Juanito Erdozia, Juan Mari Nazabal eta Gorriti anaia komenduak.

2014-12-16 2015eko Binakakoa: Zubieta Berasaluzerekin eta Ezkurdia-Zabaleta atzera ere elkarrekin.

2014-12-21 Iñigo Aritzta pilota txapelketako finalak erabakita. Txapelketan 44 pilotari lehiatu ziren.

2014-12-27 IX. Sakanako Nesken Pala Txapelketako finalak jokatu ziren.

2014-12-31 667 korrikalari Altsasuko 36. San Silbestrean. (516 heldu eta 151 txiki) etan. Ibai Huarte eta Iazkun Beunza garaile. Olaztiko proban ere giro ederra. Bestalde, 63 txirrindularik osatu zuten 32. San Silbestre-Urbasako igoera.



2014-12-12 2013-2014ko Sakanako kirolari onenak izendatu zituzten Arruazun: Joanes Bakaikoa, Maialen Aramendia, Aritz Munarriz, Sara Lizarraga, Javi Moreno, Mari Gwen Davies, Sakanako Irristaketa taldea eta Andra Mari ikastolako herri kirol taldea. Luis Martili eta Ricardo Lopez de Sabandori aipamena.

>> **Sakanerria**



2014-12-01 20. urteurrena. Abenduan Guaixe-k 20 urte bete zituen.

2014-12-03 .EUS domeinua. Interneteko euskararen eta euskal kulturaren komunitatearen adierazle den domeinua martxan jarri zen, aitzindariaren aldiaren ondoren.

Mende erdi tren



2014-12-09 Altsasuko tren geltokiaren urteurrena dela eta erakusketa zabaldu zen.



2014-12-11 Tarta lehiaketa. Uhar-te Arakilgo jubilatuek elkarrekin 10. edizioa jokatu zuten.

2014-12-16 Hondakinengatik tasa bera. Nafarroako Hondakin Partzuergoak tasak mantentzea erabaki zuen. Mank-eksortutako hondakin kopurua-

Galdeketa-aren emaitza



2014-12-15 Bost etxarriarretatik lau ingi moldatu da hondakin bilketa sistema berriarekin. Azaroan egindako galdeketa ondorioetako bat da.

Jaiotzak



2014-12-09 Sakanako Belenzaleen Elkarrekin erakusketa zabaldu zuen Olatzagutian.

gatik ordaintzea eskatu zuen.

2014-12-15 Adostasunik ez. Autopista Elektrikorik Ez plataformako eta Nafarroako Gobernuko ordezkariak bildu ziren baina goi tentsio-ko linea egitasmoari buruzko iritzirik kontrajarriak zituzten.

2014-12-16 ETB. Nafarroako Parlamentuko batzorde batek ETB ikusteko bideak azter zitzala eskatu zion Gobernuari. Altsasuar talde batek sustatu zuen mozioa.

2014-12-17 Inputazio gehiago. Lau altsasuar Iruñeko Guardia Civilaren komandantzia izan ziren. 2013an plazan preso argazkiak jartzeagatik terrorismoa goratzeagatik daude inputatuta.

2014-12-17 Aldasoro bosgarrena. Altsasuko harategia Ordizian jokatutako Euskal Herriko txapelketan bosgarren sailkatu zen.



2014-12-17 Pentsio publikoen alde. Sasoa, Nafarroako jubilatuen elkarrekin kontzentrazioa egin zuen Altsasun pentsio publikoen alde.

2014-12-19 28 gazteak. Madrilgo epaiketa bukatu zen. Ainara Ladroni akusazioa kendu zion fiskaltzak eta Imanol Salinasendako sei urteko espetxe zigorra eskatu zuen.

2014-12-20 Erakusketa dispersioak. Etxarriko Sarek prestatutako erakusketak ateak zabaldu zituen kultur etxean. Presoen senideen lekukotzak jasotzen dituen dokumentalaren emandialdiak ere iragarri zituen eguberriarako.



2014-12-20 Elkartasun eguna. Arbizun preso eta iheslarien etxeratzea eskatzeko eguna ospatu zen.

Irurtzunen Lip-dub-a



2014-12-21 Arakilarrak eta irurtzundarrak elkarrekin aritu ziren Euskarak 365 egun lip-duba grabatzen.

2014-12-21 Neguko solstizioa. Altsasun ospatu zen, Eguberri taldeak antolatuta.



2014-12-26 Musean ANFASen alde. Etxarri Aranazko Leku Ona tabernan txapelketa jokatu zen.

2014-12-29 Kontserbazio Bereziko Eremua. Izendapen hori eman zion Nafarroako Gobernuak Aralar mendia-ri.



LEHALSA

Leiho-Isolatzaileak • Alumnioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa: Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu • Telf.: 948 468 559
 info@lehalsaventanas.com www.lehalsaventanas.com

Planeta urdinerako
Green Technology



Zure ideiak **erai**kiz

diseinua inprimaketa komunikazio kanpainak